

## Tandanacui

Tandanacuitaldeak La Salle Ikastetxeetako DBH eta BATXILERGOKo nerabeek osatzen dituzte. 1989 urtean jarri ziren abian talde hauek. Gaur egun aisialdiko eskaintza bat da, Lehen Hezkuntza eta DBHko lehen ikasturtetako Izartxo taldeen jarraipenean.

Tandanacuihitza kitxua da eta esan nahi du elkartasuna, adiskidetasuna, taldea...

Tandanacui taldeen **helburu nagusia** sentsibilizatzea da eta egintzasolidarioetan parte hartzea. Izan ere talde hauetan nerabeek

- herrialde pobretuei buruz beren buruak eta beren inguruneaksentsibilizatu nahi dituzte,
- herrialde horiei lagundu nahi diete egintza solidarioen bitartez,
- garapen proiektu baterakodiru-laguntzak bilatu urtero
- beren inguruan mundu bidezkoago eta solidarioagoaren aldeko ezagutza suspertu eta alde egintza solidarioak egin.

Horretarako taldeek bilerak, topaketak eta jarduera ugariak izaten dituzte tokian tokian, eta talde ezberdinen arteko topaketa bat urtero San Asension (Errioxan).

Tandanacuitaldeetako partaideek hilero, ikasturtean zehar, aldizkari bat jasotzen dute Proye-Proegak egina taldeen laguntzarekin.

Gaur egun Tandanacuitaldeak martxan dira ikastetxe hauetan: Donostiako La Salle eta San Luisen, Zarautzen, Eibarreneta Bilbon. Talde hauek Zaragozako Tandanacui taldeekin harremanetan dira.

Labur bilduz,

- **Tandanacuitopaketa-leku** danon nerabeek galderak egiten dituzten eta sortzen zaizkien kezken erantzunak bilatzen.
- **Tandanacuizerbitzatzeko da**, gure inguruan eta urrutirago ere, “munduko pobreak” aurkitzen diren tokietan.
- **Tandanacuezagutzeko da**,izenak, datuak, teoriak, bidegabekeriak eta justizia-keinuak ere.
- **Tandanacuialdatzeko da**,geure buruak aldatzeko eta mundu hobeago baten etorkizunaren alde lan egiteko.
- **Tandanacuibizitzeko da**, geuregan sinesten dugulako, gizakiagan eta etorkizunean sinesten dugulako, BIZIAREN Jainkoarengan sinesten dugulako.

Prozesu honen amaieran, tokiko Ordezkaritzek“Jende Xumea” nazioarteko gazte-boluntariotzan parte hartzeko aukera eskaintzen diete gazteei.